



## GOBERNU BATZARRA

2024.05.21

**Alkatea:**

**Angel Martinez de Rituerto Arregi**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Ander Figuerido Zubiria**

**Kristina Pelaez Errazkin**

**Ez dira bertaratu:**

**Aitor Agirresarobe Murgi**

**Estitxu Kortejarena Ugarte**

**Goiuri Ezeiza Arandia**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontu-hartzaile akzidentala:**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hogeita batean, 10:00etan, bigarrenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2024ko apirilaren 30ekoa.

2. Onartzea Nura Gizarte Elkarteari itzultzea bi zerbitzu-kontratuari dagozkien behin betiko bermeak: Tolosako udalerrian arrisku egoeran dauden adingabeentzako ingurune irekiko gizarte eta hezkuntzako esku-hartzekoarena.

Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzekoarena.

3. Onartzea EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA S.L. enpresari Leidor zinemaren inguruko urbanizazio kntzeptupean aurkeztutako abala bueltatzea.

4. Dekretu honen berri ematea:

2024/1169 Dekretua: 2023/82 faktura zerrenda.

2024/1043 Dekretua: 2024/15 faktura zerrenda.

2024/1044 Dekretua: 2024/16 faktura zerrenda.



**2024/1115 Dekretua: 2024/18 faktura zerrenda.**

**2024/1153 Dekretua: 2024/19 faktura zerrenda.**

### **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO APIRILAREN 30EKOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

### **2. ONARTZEA NURA GIZARTE ELKARTEARI ITZULTZEA BI ZERBITZU-KONTRATUARI DAGOZKIEN BEHIN BETIKO BERMEAK: TOLOSAKO UDALERRIAN ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABEENTZAKO INGURUNE IREKIKO GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEKOARENA. TOLOSAKO UDALERRIAN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU-HARTZEKOARENA.**

UNITATEA	<b>GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA</b>
XEDEA	BI ZERBITZU-KONTRATURI DAGOKIEN BEHIN BETIKO BERMEAK ITZULTZEA
ORDEZKARIA	LUZ MARIA CLEMENTE MORAN
TITULARRA	NURA GIZARTE ELKARTEA

### **IKUSIRIK**

LEHENA.- 2024/5688 sarrera erregistro bidez honako eskaera egin duela Nura Gizarte Elkartearen izenean:

*Nura gizarte elkarteak aurrera eramandako bi zerbitzuen abal originalekn eskakizuna burutzen dugu, 2018 eta 2019ko zerbitzu hauenak:*

*-“Servicio de intervención educativa en medio abierto con jóvenes y menores en situación de riesgo en el municipio de Tolosa” Bermearen zenbatekoa 11.721,70€*

*-“Servicio de intervención socioeducativa y psicosocial en el municipio de Tolosa” Bermearen zenbatekoa 13.140€*

BIGARRENA.- GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA Saileko teknikariak egiaztatu du bi kontratu horiek 2022ko uztailaren 31ean iraungi zirela.

### **KONTUAN HARTURIK**

LEHENA.- Gizarte Zerbitzuak Eta Osasuna Saileko teknikariak “TOLOSAKO



UDALERRIAN ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABEENTZAT INGURUNE IREKIKO GIZARTE ETA GEZKUNTZAKO ESKU-HARTZE ZERBITZUA GAUZATZEKO KONTRATUAREN BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEKO KONTRATUA BETETZEARI BURUZKO txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

*«Esleipendunak kontratua behar bezala bete duela, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan eta Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan ezarritako baldintza guztiak bete dituela, eta, beraz, adierazitako kontratua erabat bete dela. Era berean, ezarritako berme-epa amaitu da.*

*Aurrekoa kontuan hartuta, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aipatutako behin betiko bermea itzultzearen aldeko txostena egiten dut, 11.721,70€koa.»*

BIGARRENA.- Gizarte Zerbitzuak Eta Osasuna Saileko teknikariak "TOLOSAKO UDALERRIAN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZUA GAUZATZEKO KONTRATUAREN BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEKO KONTRATUA BETETZEARI BURUZKO txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

*«Esleipendunak kontratua behar bezala bete duela, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan eta Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan ezarritako baldintza guztiak bete dituela, eta, beraz, adierazitako kontratua erabat bete dela. Era berean, ezarritako berme-epa amaitu da.*

*Aurrekoa kontuan hartuta, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aipatutako behin betiko bermea itzultzearen aldeko txostena egiten dut, 13.140,00€koa.»*

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. n) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza. Bestalde, Tolosako Alkatetzak, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Dekretuaren bitartez, lankidetzeta-hitzarmenak onartzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea erabaki zuen. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da kontratu horiei dagokien bermearen itzulera onartzeko organo eskuduna.**

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**



**LEHENA.-** Nura Gizarte Elkarteari itzultzea 11.721,70€ko behin betiko bermea, Tolosako udalerrian arrisku egoeran dauden adingabeentzako ingurune irekiko gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzu-kontratua bete duelako.

**BIGARRENA.-** Nura Gizarte Elkarteari itzultzea 13.140€ko behin betiko bermea, Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua bete duelako.

### **3. ONARTZEA EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA S.L. ENPRESARI LEIDOR ZINEMAREN INGURUKO URBANIZAZIO KNTZEPTUPEAN AURKEZTUTAKO ABALA BUELTATZEA.**

ESPEDIENTEA: 2024H3440001

SARRERA: 2024/06/26 (2024-5700 sarrera zenbakia)

ESKATZAILEA: EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA SL  
Ordezkaría: Margarita Ruiz Martin

JARRITAKO ABALA: 28.783,46 euro

#### **AURREKARIAK**

2007ko ekainaren 25ean, Tolosako Gipuzkoa Plazako Leidor ingurua urbanizatzeko obraren harrera-akta egin zen.

2007ko azaroaren 21ean aurkeztu zen Tolosako udaletxean obra-zuzendaritzaren azken ziurtagiria, Jose Maria Roteta Zuriarrain arkitekto teknikoak eta Peña Ganchequi arkitektoek eta Elkartuek oniritzia emanda.

Ondoren, akats batzuk agertu ziren eta EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA SL enpresak konpondu egin zituen.

Obren berme orokorreko epea urte batekoa zen, 2007ko azaroaren 21ean formalizatu zen behin-behineko onarpenetik kontatzen hasita.

2024ko apirilaren 26an, EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA SL enpresak Tolosako Udaletxean eskaera aurkeztu zuen jarritako banku-abalaren itzulera eskatuz, "Leidor zinemaren ingurua urbanizatzea" obra behar bezala egiteko berme gisa jarritakoa.

#### **AZTERKETA TEKNIKOA**

2024ko maiatzaren 9an, udaleko ingeniariak txostena (JMO24049) egin zuen adieraziz berme-epea beteta zegoela eta Leidor inguruko urbanizazio obrak amaituta, beraz,



proposamena egin zuen **ESCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA SL** enpresari **28.783,46 €ko bermea itzultzeko**.

Adierazitako aurrekariak zein egindako azterketa teknikoa ikusita, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA S.L. enpresari, *Leidor zinemaren inguruko urbanizazioa* kontzeptupean Tolosako Udalean 2006ko abuztuaren 18an aurkeztutako abala (Abalen Erregistro Bereziko zenbakia: 4977 2110000097) bueltatzea, bere kopurua honakoa delarik: **hogeita zortzi mila zazpiehun eta laurogeita hiru euro eta berrogeita sei zentimo (28.783,46€)**.

**BIGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea interesdunari eta udaleko kontu-hartzaitza zein diruzaintza sailari.

### 4. **DEKRETU HONEN BERRI EMATEA:**

#### **2024/1169 DEKRETUA: 2023/82 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2024/1169 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

#### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

*Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:*



82. zenbaki duena, 27.944,16 eurokoa.

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, Jarduneko Zinegotzi Delegatu honek*

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

82. zenbaki duena, 27.944,16 eurokoa.

**BIGARRENA.-** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekursoa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekursoaren orde, edo errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurso hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez



### UDAL IDAZKARIAREN EGINBIDEA

Tolosako udaleko Kontuhartzaitzak 82/2023 Fakturen zerrenda aurkeztu du, 2024ko martxoaren 19ko datarekin.

Aurkezturiko fakturen artean, honako hauek daude:

Faktura zk.	Fakturaren data	Jaulkitzailea/Kontzeptua	Zenbatekoa	Partida
1/2023	2023/11/27	AMUNDARAIN ORBEGOZO IZAR Dirección y creación guía Eliker	9.132,08 €	1 1100.227.07.419.01 2023
3	2023/11/27	ORBEGOZO REZOLA ARANTZA Ilustraciones de la guía de nutrición	9.132,08 €	1 1100.227.07.419.01 2023
		Guztira	<b>18.264'16 €</b>	

(kopuru horietan BEZa sartutzat ematen da).

Garapen ekonomikoa, Enplegua, Turismoa, Merkataritza eta Azokak Saileko zerbitzuruak, 2024ko martxoaren 22an egindako txostenean, honako hauek egiaztatu ditu, labur bildurik:

- Aurkezturiko ordainagiriak bat datozela Tolosako udalaren, Hazi Fundazioaren eta Basque Culinary Centerren arteko lankidetzahitzarmenarekin (2022ko urtarrilaren 1ekoa), eta udal honen eta Hazi Fundazioaren artean 2022ko abenduaren 23ko lankidetzahitzarmenarekin. Hitzarmenarekin.
- Zehazki, ordainagiri hauekin loturiko zerbitzuak Tolosako udalak eta Hazi Fundazioak izenpeturiko hitzarmenean aurreikusitako formazio ekintzen barruan sartzen direla. Izan ere, hemen aipatzen diren ordainagiriaren jaurtitzaileek haurrentzako nutrizio-gida egin zuten, batek testua, eta besteak ilustrazioak.

Arrazoi hauengatik, aipatu den teknikariak, fakturak ordaintzea proposatu du.

Tolosa udaleko 2023ko Aurrekontua gauzatzeko Arauaren 29 bis artikulua honako hau xedatzen du: 8.- Gastu arruntetarako edo inbertsioetarako 8.000,00 euro (BEZik gabe) gainditzen dituen kontratu txiki bat egiteko, espedientea tramitatzeaz gain, aurreko artikuluetan ezarritakoari jarraiki, eskatuko da gutxienez 3 aurrekontu eskatzea. Orokorrean, kontratu txikien prozeduretan, prezioa izango da balorazio-irizpide bakarra.



*Baldin eta pentsatzen bada teknikoki egokia dela prezioa ez beste irizpide batzuk baloratzea, orduan, puntu hori jaso beharko da espedientean.*

*Eskaintza-eskaera indibidualizatuaren alternatiba gisa, eskaintzak modu irekian eskatu ahal izango dira, kontratatzailearen profilean argitaratuz, eta 15 egun naturaleko epea ezarriz.*

*Salbuespenez, eta dagokion txostenarekin behar bezala justifikatu ondoren, enpresa gaitu bakar bati kontsulta egin ahal izango zaio, ondorengo zirkunstantzia hauetakoren*

*bat gertatzen Arrazoi teknikoengatik (patenteak, garapen informatiko propioak) edo arrazoi artistikoengatik.*

*Kontratuaren xede den zerbitzua aldi batean betetzeko beharra dagoenean, harik eta zerbitzuaren kudeaketa moduaren prozedura ireki/sinplifikatu/supersinplifikatu/mugatu/negoziatu bat esleitu arte, beti ere dagokion espedientea hasi bada.*

*Kontratuaren xedearen kontzeptua jurisprudentzia ugariak zehaztu du. Adibidez, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak, 571/2016 honako hau aitortu zuen: Cuando el órgano de contratación pretende contratar una obra, suministro o servicio para satisfacer una determinada necesidad, existiendo una única finalidad técnica y económica de las diferentes prestaciones que se contratan, la licitación ha de efectuarse en un único procedimiento, el cual podrá en su caso dividirse en lotes, dado que en caso contrario se estaría produciendo un fraccionamiento indebido del objeto del contrato. Solo cuando exista una razón objetiva que permita considerar que cada prestación en sí misma considerada responde a una única finalidad técnica y económica, independiente y separable del resto, podrá el órgano de contratación optar por efectuar procedimientos separados. Para que se produzca un fraccionamiento indebido no es necesaria la existencia de una intención elusiva por el poder adjudicador, bastando la división de un contrato cuyo objeto era único. Kasu honetan ez da lizitaziorik egin behar, baina udal araudiak xedaturikoa bete behar zen zerbitzu hauek esleitzeko garaian.*

*Idazkari honen iritziz, bi kontratu txiki hauen xedea bakarra da: haurrentzako nutrizio-gida bat egitea. Prestazioak ezberdinak ziren, bai (gisa idaztea eta ilustrazioak egitea), baina biek osatzen zuten xede bakar bat, zera, gida egitea. Gida honen balio zenbatetsia (BEZa kenduta), 15.094'35 €koa izango litzateke. Kasu honetan, posiblea zen esleipena loteka egitea, baina lote bakoitza esleitzeko errespetatu beharko litzateke xede osoari dagokion prozedura, Aurrekontua Exekutatzeko Arauan xedaturikoa, hiru aurrekontu eskatzea hain zuzen, baina hori ez da bete.*

*Bestaldetik, prozedura osoan ez da justifikatu Betearazpen Arau horretan aurreikusitako betebeharra salbuestea ahalbidetzen duen zirkunstantziarik: arrazoi teknikorik, eskusibotasunik, etab. Beraz, kasu honetan ez dira bete Arau horretan ezarritako baldintzak.*

*Bere ondorioak sor ditzan, eginbide hau luzatzen dut, sinaduran adierazitako datan.*  
**UDAL IDAZKARIAK**





Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2024/1043 DEKRETUA: 2024/15 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2024/1043 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2024KFAK0002

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

*Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:*

*15. zenbaki duena, 326.513,21 eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, Jarduneko Zinegotzi Delegatu honek*

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*15. zenbaki duena, 326.513,21 eurokoa.*



**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordeztu, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2024/1044 DEKRETUA: 2024/16 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2024/1044 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2024KFAK0002

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

*Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetzako Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

ESKU10717196-a093-426e-8337-81a1f79d4149



*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:*

*16. zenbaki duena, 130.622,17 eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, Jarduneko Zinegotzi Delegatu honek*

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*16. zenbaki duena, 130.622,17 eurokoa.*

**BIGARRENA.-** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsua aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekurtsorearen orde, edo errekurtsorearen erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsu hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*



**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

*Estitxu Kortejarena Ugarte*

*Begoña Garmendia Vazquez*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2024/1115 DEKRETUA: 2024/18 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2024/1115 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2024KFAK0002

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN  
DEKRETUA**

*Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:*

*18. zenbaki duena, 274.671,67 eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, Jarduneko Zinegotzi Delegatu honek*

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*



18. zenbaki duena, 274.671,67 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2024/1153 DEKRETUA: 2024/19 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2024/1153 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2024KFAK0002

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

*Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetzako Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*



### **KONTUAN HARTURIK**

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:*

*19. zenbaki duena, 427.778,89 eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, Jarduneko Zinegotzi Delegatu honek*

### **EBAZTEN DU**

**LEHENA.-** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*19. zenbaki duena, 427.778,89 eurokoa.*

**BIGARRENA.-** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordeztu, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

ESKU10717196-a093-426e-8337-81a1f79d4149



TOLOSAKO  
UDALA

2024IGBA0011

**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

*Estitxu Kortejarena Ugarte*

*Begoña Garmendia Vazquez*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 10:00etan.**

ALKATEA

IDAZKARIA



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGBA0012-2024-05-21 Gobernu batzarra akta/2024-05-21 Gobernu